

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

**«BERARENGAN SINESTEN DUGU.
BERA IRAGARTZEN DIZUEGU»
(ikus 2 Kor 4,13)**

**IRUÑE-TUTERA, BILBO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO
GOTZAINEN ARTZAIN AHOLKUA**

1998, GARIZUMA-PIZTUERA KO PAZKOA

AURKIBIDEA

Sarrera

- 1. Denboraldiaren esanahia**
- 2. Liturgi urteko aldien erritmoa eta aldaketak**
- 3. Gu geu egiaz garena aurkitzeko egokiera**
- 4. Salbamenaren iragarpen eta ezaugarri**
- 5. Bizitzeko bi era**
- 6. Garizumaren mezu argia**
- 7. Garizumako ekintzak**
 - a) Otoitz egiteko aldia**
 - b) Barau eta askatasunaldia**
 - c) Karitaterako eta elkar maitatzeko aldia**
 - d) Domutzeko eta penitentzia egiteko aldia**

Amaiera

Sarrera

Aspaldiko urteetan, Garizumaren hasieran, gure Elizetako katolikoei eta gure hitza entzun eta bizitzako gure orientabideak kontuan hartu nahi dituzten gizon-emakumeei Pastoral Idazkia idatzi ohi dizuegu elkarrekin.

Aurten ez dizuegu Idazki monografikoa egingo, artzain-aholku xumea baik. Zuen bizitzako une honetan, Garizumaren deia ulertzen eta bizitzen lagundu nahi dizuegu, bai elizkideen artean bai gizartean.

Jainkoaren deia, Berak dohain emandako bizia bete-betean bizitzera egiten digun deia, denentzat den bezala, gure dei hau ere denentzat izatea nahi dugu. Baliteke guk ez jakitea, baliteke Beraren hitza entzuten saiatzea edota geure munduko arazoetan galdurik ibiltzea, baliteke geure kontzientziari entzungor egitea, baina esan beharra dago, Jainkoa gabe gure bizitza ezin dela ulertu eta ez duela zentzurik.

1. Denboraldiaren esanahia

Galdegin dezake norbaitek ba ote duen gaur zentzurik Garizumaz mintzatzek; izan ere, gaur egun dugun egutegi zorrotz eta hotzak ez digu aldi batzuk beste batzuetatik bereizteko aukerarik ematen.

Pertsona askorentzat denboraren joana beti berdina da. Ez dago asteguna eta jaieguna beste bereizketarik, edota lanaldia eta atsedenaldira edo oporraldia besterik.

Hori guztia adierazteko, mintzaira sekularra erabili ohi da, mintzaira erlijiosoa ia aipatu ere egin gabe. Lanaren ondoren atsedena eta dibertsioa datoz, Jainkoa edota norberaren erlijio-bizitza deusetarako aipatu gabe. Badirudi giza bizitzak ez duela beste helbururik, beste edukirik, aurrez aurreko errealitate materialean ikus daitekeena baino.

Ez ditugu azalez eta itxura hutsez sakralizatu nahi gure bizitzako denboraldi eta erritmoak. Denboraren joanak dituen alderdi desberdinak eta horrek gizakiarentzat duen esanahi sakona aurkitzen lagundu nahi dizuegu, kutsu erlijiosoa duten denboraldiak baztertu gabe.

Badakigu gure esana ez dutela denek era berean hartuko. Hala ere, denentzat mintzatu nahi dugu. Denei zuzendutako hitz ireki eta senidekoia izan nahi du gure mintzoak: bai kristau-elkarteen ospaketa eta bizitzan parte hartu ohi duzuenoi, bai, kristau izanik ere, elizkizunetan parte hartzen ez duzuenoi, baita zeuon otoitz pertsonala ere utzi duzuenoi, edota fede-bizitza eta kristau-bizitza inola, ez barnean ez kanpoan, azaltzen ez duzuenoi ere.

Sinesgarri eta onuragarri den zerbait adierazi nahi dizuegu gizon-emakume guztioi, baita zeuon burua fededuntzat hartu ez arren, zeuok ulertzen duzuen moduko egiarekin bihotz barnean leial izan nahi duzuenoi ere, zeuon

kontzientziaren oihua zinez entzun eta onarturik jokatu nahi duzuenoi, alegia. Norberaren jarrera morala zintzoa denean eta zuzentasun bila dabilenean, badakigu ez dela halakoarengandik urruti Jainkoaren Espiritua. «Jainkoa ez dago urruti, itzal eta irudi artean Jainko ezezagunaren bita dabiltzanengandiko» (VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Lumen gentium*, Elizari buruzko Konstituzioa, 16. z.).

Borondate oneko gizon eta emakume guztien bihotzetan dago eta ari da Jainkoaren Espiritua. Horregatik espero dugu baliagarri gertatuko zaizkizuela gogoeta hauek, egiaz eta zuzentasunez bizi nahi duzuen guztioi. Jainkoaren Espirituak eraginik hitz egiten asmatu nahi genuke, Berak inguratzen baikaitu eta gidatzen egia, zuzentasun eta bizi betera.

2. Liturgi urteko aldien erritmoa eta aldaketak

Urteko egun guztiak ez dira berdinak. Gure bizitzaren joanean, gertaera, jai eta oroitzapen desberdinak ospatu ohi ditugu. Toki guztietan errespetatu ohi dugu, era batera nahiz bestera, astegun eta jaiegunen arteko desberdintasuna. Hala ere, denboraldi desberdin horien edukia, esanahia eta bizitzeko era ez dira berberak toki guztietan.

Historian eta munduan txertatuak gaudenez, norberaren bizitzan, senitar-tean eta gizartean era berezian ospatu ohi ditugu bizitzeko unerik garrantzitsuenak: jaiotzea nahiz hiltzea, osasuntsu egotea nahiz gaixotzea, elkar ikustea nahiz elkarrengandik urrutiratzea, bizitzako egoera desberdinek dakarkiguten poza nahiz tristura.

Badirudi ezin ditugula une bakarrean bildu bizitzak berekin dituen alderdi eta egoera desberdinak. Atalka bizi eta ospatu beharra dugu, alderdi eta ikuspegi desberdinak banakatuz. Bata bestearen ondoren egin ohi ditugu ospaketak, giza bizitzak dituen alderdi ugari eta desberdinak ez ahazteko, nahiz eta bizitza hori xumea dela uste izaten dugun.

Jainkoak, bere Seme Jesukristoren bitartez, gure denboraldian eskaintzen digun salbamenaren gertakari eta eduki desberdinak gogoratu, adierazi, ospatu eta bizi nahi ditugunean ere halako zerbait gertatzen zaigu. Denboraldiaren joanean gertatua da Jesukristok berak bizi izan duena, Berak halaxe agertu diguna eta guk jakin eta fedez onartu duguna, Apostoluen eta Elizaren testigantzan oinarriturik.

Ezin ditugu une bakarrean gogoratu, ospatu eta bere osoan hartu Jesusen bizitzako gertakari guztiak. Jesusek bere denboraldian kristau-bizitzarako hurrenez hurren adierazitako irakaspenak, eskakizunak eta promesak ere ezin ditugu denak batean hartu.

Horregatik, gure izaerak eskatzen duen bezala eta bizitzako beste alderdi batzuetan egin ohi dugun moduan, denboraldi erlijioso desberdinak bereizi egiten ditugu. Eta denboraldi bakoitzean Jesusen bizitzako edota salbamenaren

historiako edota geure kristau-bizitzako gertaera eta eduki desberdinak gogoratu eta hausnartu ohi ditugu¹.

Horrela sortuak dira Eguberri eta Pazkoaldia, Abendu eta Garizumaldia, pozteko nahiz penitentzia egiteko denboraldiak, otoitz egiteko nahiz ekintzarako denboraldiak, barrera biltzeko nahiz alaitzeko denboraldiak.

«Pazko Hirurrena» iturri delarik, Piztueraren denboraldi berria sortzen da, liturgi urte osoa bere distiraz betetzen duela Pazko-misterioak dituen alderdi desberdinak ospatzen dira liturgi urtean barna².

Horrela dago zuhurki antolatua Liturgi Urtea, giza ohituran oinarritua, indar pedagogikoz betea. Denboraldien joanari jarraituz, Kristoren bizitzako gertakariak, gure salbamenerako izan diren gertakariak, hurrenez hurren eskainiak datozkigu. Gertakari horietan guztietan geldi gaitezke horrela, bakoitzari zor zaion eta gure bizitzak behar duen arreta eskainiz.

3. Gu geu egiaz garena aurkitzeko egokiera

Jesukristo hilen artetik piztu zela gogoratzeko eta gogotsu bizitzeko presatu ohi gara kristauok Garizuman. Horretarako dugu denboraldi hau. Eta Pazkotan ez dugu aspaldi gertatua omen den zerbait gogoratzen, baizik eta orain eta hemen gertatzen ari den zerbait ospatzen dugu. Eta gertakari horrek moldatu egiten du gure bizitza, mundu honetan bizitzeko era, bizitza osoa ulertzeko eta eramateko era.

Elizaren liturgian etengabe entzun ohi da «gaur» hitza. Izan ere, gertaberri egiten ditu Espiritu Santuak Kristoren bizitzako misterioak eta Haren salbamen-egintzen eragina. Liturgialdi bakoitzean Kristoren bizitzako une desberdinetara hurbil gaitezke egiaz, eta horietan gure salbamenerako bidea eta indarra aurkitu³.

Bat-batean begiraturik, badirudi gizon-emakume asko ez dela gure bizitzako ikuspegi horietaz gehiegi axolatzen. Gaur egungo kultura eta biziera ikusirik, badirudi berehalako eta, batzuetan, bata bestearen kontrako interesak ez direla kontuan hartzen gure bizitzan. Bizitza gure ekintza, erabaki eta eginahalen ondorioa besterik ez delakoan gaudela esan daiteke.

Esperientzia ezkorrak izateak eta espero genuenak huts egiteak fidakaitz egin gaituzte promesa handien aurrean. Geure esku ez dugun etorkizunaren aurrean sumatzen dugun segurtasunik ezak berehalakoa balioztatzerako eramatzen gaitu, une honetan geure eskura duguna balioztatzerako Une honetan goza deza-

¹ Ikus VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Sacrosanctum Concilium*, Liturgia santuari buruzko Konstituzioa.

² Ikus *Eliza Katolikoaren Dotrina*, 1168., 1171.zz

³ Ikus *Eliza Katolikoaren Dotrina*, 1165.z.

kegun zorientasun apurra nahi dugu aurkitu, eta hori eskuratzeagatik lanordu luzeak ematea eta eginahalak egitea merezi duela uste dugu.

Bizitza, berez, zaila eta iluna da. Batzuek, Jainkoaren laguntzaz, onartzen dugu Jainkoak egin dizkigun agerpena eta promesak. Horren argitan ikusi ahal izaten dugu geurez ezin izango genukeena, eta argi horrek lagundu egiten digu itxaropenez eta kemenez bizitzen. Horregatik, onartu egiten ditugu Jainkoak bere errukiz eta hutsean ematen dizkigun dohainak. Eta horrela, gure buru eta bihotzak berez duten irrikari erantzuna ematen diogu.

Beste batzuek, aldiz, adimenarena beste argirik gabe nahi dituzte argitu bizitzako misterioak, han eta hemen entzuten dutenaren argitan, eta zientziak egin ohi dituen adierazpen miresgarrietan uste osoa jarritz. Beste zenbaitek, berriz, arrazoizko oinarririk ez duten aztikeria edo magia nahiz sineskerietan aurkitu uste du bere bizitzarako argitasuna eta segurtasuna.

Halako pertsona asko etengabeko zalantzan bizi da, bere bizitza itxaropenez eramateko kemenik gabe eta behin betiko erabaki koherenteak hartzeko ere askatasunik gabe. Oharkabea eta zalantza artean bizi izandako esperientziak –esku-eskura daukagunaren esperientziak, alegia– lotu eta katigatu egiten dizkie beren borondate eta asmo onak.

Gatibu geratze hau, maiz, jainkoarengan konfiantzarik ez izatearen ondorio da. Jainkoa Jesukristorengan agertzen zaigu, salbamenaren historian, baita izadian ere eta, orobat, norberaren nahiz taldearen bizitzeko gertakarietan, salbazioa adierazten duten gertakarietan⁴.

Pertsona batzuk Elizagandik urrutiraturik bizi dira, beraien iritziak eta Elizaren irakaspen nahiz erabakiak bat ez omen datozelako, egiaz nahiz itxuraz. Hala ere, pertsona horietako askok sinesten du Jainkoarengan eta Jesukristorengan, eta Beraren Ebanjelioaren arabera bizi nahi dute, pertsona izateko eredu eta bizitzeko arau zuzena ikusten baitute Ebanjelio horretan.

Egiatzko Jainkoa ezagutu ez izanak edota Berari buruzko zenbait iritzi oker eta itxuragabek eragotzi egiten die batzuei beren fedea agerian azaldu eta elizkoi izatea⁵. Baina halakoak beren bizitzaren zentzuaren bila benetan badabilta, bihotz garbiak baldin badira, bizitza dohain neurtezina dela esperimintatzen badute, lehentxeago edo geroxeago irekiko dituzte beren bihotz zintzoak, Jainkoa badela eta salbatu nahi gaituela ikusi eta aitortzeko.

Jainkoak guretzat duen esanahia eta guk dugun Beraren beharra ingurune kulturalen ezkutatua edota desitxuratua egonik ere, gizon eta emakume zintzoen bihotzetan behin eta berriz azaltzen dira gure izateari buruzko galdera sakon eta garrantzitsuenak, eta Jainkoari buruzko galdera egitera eramaten dituzte. Galdera horiek eraman dezakete horrelako gizakia Jainkoari dei egitera

⁴ Ikus *Erromatarrei Gutuna*, 1,28 hur.

⁵ Ikus *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaur egun*, elkarrekin egindako Pastoral Idazkia, 1986, II. eta III. kap.

ere, nahiz eta ez duen Jainkoa erabat onartzen, baina ezta erabat ezezaguntzat hartzen edo baztertzen ere.

Badakigu, sinesteko edota fedeak argitzen dituen egiak osorik onartzeko, bizitzako une batzuetan zailtasunak dituzuen gizon-emakumeok egokiera ederra izan dezakezuela Garizuman zeuon giza izatea jarrera zintzo eta leialagoz bizitzeko, bai zeuon buruaren aurrean, bai, azken batean, Jainkoaren aurrean.

Zeuon kontzientzia zuzenaren arabera bizi bazarete, bizitzako une bakoitzean ikusten eta hartzen duzuen egiari leial erantzuten saiatzen bazarete, azkenean ohartuko zarete Jainkoaren maitasuna hor duzuela, bizitzera deika, zuzen eta itxaropentsu izatera deika, zuen bihotzaren barne-muinetik eta bizitzako esperientziarik benetako eta baliotsuenetatik deika.

Horrexegatik, kontzientzi askatasunari eta erlijio-gauzetan norberak egingadako aukerari zor zaion begirunea ez daude kontzientziaren esana egiteko denok dugun obligazio morala aitortzearen kontra. Alderantziz, askatasun horrexek bultzatu behar gaitu, geure bizitzan egia zintzo bilatzera; eta, gainera, bizi den Jainko Kreatzaile eta Salbatzailea aurkitu ahal izatea baztertu gabe. Jainko hori Jesukristorengan agertu zaigu eta Elizaren bitartez ezagutu dezakegu⁶.

Hala eta guztiz ere, badira, tamalez, mundu honetako ondasunak sasijainkotzat hartu eta, egiazko jainkoa bazterturik, beren buruak jainkotzat hartzen eta gurtzen dituztenak; eta lagun hurkoaren ona hondatzeko ere prest egoten dira, beren buruak goratu eta gezurrezkoa eta ezinezkoa den zoriontasuna eskuratzeagatik. «Jainkoak zeru gainetik agertzen du bere madarikapena, gizon-emakumeen fedegabekeria eta zuzengabekeria guztien kontra, beren zuzengabekeria egia bahiturik daukate eta» (*Erromotarrei Gutuna*, 1,18).

Ebanjelioetan bilduak dauden Jesusen irakaspen eta egintzek animatu egiten gaituzte gizakiaren borondate onaren eraginean konfiantza izatera Egiazko eta baliozko dira denentzat Jesusen hitzak: «Eska ezazue, eta emango zaizue; bila ezazue, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue.» Izan ere, ona da denentzat zeruko Aita, bila dabilkionari agertu egiten zaio eta denei ireki nahi die bizitza hilezkor eta aintzatsurako atea⁷.

Jainkoarengan ohartuki sinesten ez duen gizon eta emakume askok ere dei egiten dio, sufrimendu material nahiz espiritualen bat duenean, gaixorik nahiz bakardadean dagoenean, zalantza edota barreneko harra duenean, beste pertsona batzuei zerbitzuren bat bihotzez egiten dienean edota norbaiten maitasunari leial zaionean.

Denak gonbidatzen ditugu Garizuma denboraldi egokitzat hartzera, nor bere buruarekin leial izateko, bere kontzientzia zuzenak eskatzen dionarekin bat etortzeko eta bere giza izateak ikusarazten dion zentzu onaren obligazioak hobeki betetzeko.

⁶ Ikus VATIKANOKO II. KONTZILIOA, *Dignitatis humanae*, Erljio-askatasunari buruzko Adierazpena, 1-3.zz.

⁷ Ikus *Mateo* 7,7-8.

Ziur gaude halakoen gogo onaren atzean Espirituaren eragina eta Jainkoaren erruki handia ari direla Erruki hori bizi-iturria da beti eta denentzat, eta Kristo piztuarengan betearen betea lortzera egiten zaien deia, badakitenentzat bezala, jakin gabe, horren zain daudenentzat ere.

4. Salbamenaren iragarpen eta ezaugarri

Gizon-emakume guztien alde eta izadi osoaren alde Jainkoak bete duen egintzarik handiena da Jesusen piztuera.

Gauza guztiak, ikusten direnak eta ez direnak, jakinduria eta maitasun handiz sortarazi zituen Jainkoa bere salbamen-asmoa ezarian-ezarian agertuz joan zen, Herri aukeratuaren bidez Gizon-emakumeen gogoak eta bihotzak prestatuz joan zen, denen Salbatzaile izateko Maria Birjinarengandik jaioko zen Jainkoaren Semearekin topo egin ahal izan zezaten.

Abrahamek, Moisesek, Davidek, Israelgo profeta handiek, eta gizon eta emakume askoren fede eta itxaropenak bideratu zuten Jainkoaren eta gizadiaren arteko maitasun eta konfiantzazko historia hau, errukitsua den Jainkoaren eta bihotz-gogor, ahul eta bekatari den gizadiaren artekoa, alegia. Izan ere, ahul eta bekatari izan arren, beti berri du gizadiak Jainkoarenganako fedea eta, azkenean, salbamina izango zuenaren itxaropena⁸.

Apostoluen testigantzak eta lehen kristau-elkarteen tradizioek –Ebanjelioetan jaso eta Elizak mendez mende zabalduzako tradizioek– adierazten diguteenez, piztu egin zuen hilen artetik Jainkoak bere Seme Jesukristo, gurutziltzatua, hila eta hobiratua izan ondoren⁹.

Jainkoaren sorketa-lanaren burutzea da Jesusen piztuera, Gizadiak behin betiko izango duen egoeraren hasiera, mugagabe bizitzeko dugun gogo betetzeko atea. Izan ere, Jainkoaren betiereko bizian txertaturik, aingeru eta santuekin batera, beti bizitzeko itxaropena dugu. «Guk zeruan dugu geure herri; eta itxaron, handik itxaroten dugu Salbatzailea, Jesukristo gure Jauna. Berak aldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatxoaren antzeko eginez, gauza guztiak menperatzeko duen indarrez» (*Filipotarrei Gutuna*, 3,20-21).

Jainkoaren Jakinduriaren eta guretzat duen Ontasunaren agerpen nagusia Jesukristo piztua da. Sinestedun guztientzat bizi eta salbamen-itxaropena Jainkoak berak gure bihotzean jarri dituen nahierarik sakonenak ase ditzakeen bizi eta zorion-iturria denentzat. «Berarengan sinesten dugu eta Bera iragartzen dizuegu»¹⁰.

⁸ Ikus *Hebertarrei Gutuna*, 11. kap.

⁹ Ikus *Korintoarrei lehen Gutuna*, 15,3-11.

¹⁰ Ikus *Korintoarrei bigarren Gutuna*, 4,13.

5. Bizitzeko bi era

«Hil eta gero zer?» Galdera honen aurrean hartutako jarrerak oso era ezberdinean ipintzen gaitu gizon-emakumeok bizitzarekiko. Batzuen ustez, heriotzan eten egiten da bizia behin betiko. Edota, hil ondoren egon daitekeena hain zalantzazko eta zehaztugabeko denez, ez du merezi kontuan hartzerik ere, gure bizitza planteatu eta antolatzeoan.

Dena heriotzan bukatzen dela onartuz gero, ezin dugu mundu honetan eskura daitezkeen helburuak baizik izan. Bizitza mundu honetako muga estuetan itxia dagoela uste izateak murriztu egiten du gizon-emakumeen ahalegina, geure ahalmen hutsez lor ditzakegun errealitate eta asmoak baizik ez baititu ikusten.

Hil ondoren piztuerarik ez bada, ba al du zerikusirik Jainkoak gurekin? Gizon-emakumeok bakar-bakarrik gaude mundu honetan, burbuila itxi batean bezala, eta mundu honetan bizitza ahalik eta erarik erosoenean antolatzen saiatzea besterik ez dugu. Aukera dezakegu elkarren arteko bizitza solidaritaz eramatea, baina ez dugu behin betiko arrazoirik izango, ezta indar moral sendorik ere horrela bizitzeko. Eskura izan ditzakegun ondasunez baliaturik, ahalik eta zoriontasunik handiena bilatzera eragingo digu geure adimenak, nahiz eta horretarako lagun hurkoa eta beraren giza eskubiderik funtsezkoenak ere sakrifikatu behar baditugu ere.

Jesukristo piztu zuen Jainkoarengan sinesten dutenen ustetan, aldiz, Jainkoak doan eman nahi digun betiko bizitza prestatzeko denboraldia baizik ez da bizitza hau. Betiko bizitza hori hasia da eta denentzat irekia dago, Jesus Jauna piztu zenez gero¹¹.

Kristau-fedearen aitoren nagusi honek funtsezko eta behin betiko ondorioak ditu mundu honetako gure bizitza ulertu eta antolatzeoan.

Jesukristorenganako fedearen bidez, hau da, Elizaren baitan hartzen, ospatzen eta bizitzen dugun fedearen bidez, Jainkoak betieren bizitzeko itxaropena eman digunontzat bada mundu honetako bizitza ulertu eta eramateko beste era bat¹².

Jesukristo piztu zuen Jainkoarengan sinestean, Bera guretzat zeinen on den eta nola maite gaituen antzematen dugu, eta ohartu ere ohartzen gara, horri esker bizitze eta giza izate betera hel gaitezkeela: «Izan zaitezte jainkoaren antzekoak, Haren seme-alaba zaretenez gero, eta zabilzate maitasunean, Kristok ere maite izan baitzintuzten eta bere burua guretzat eman zuen» (*Efesoarrei Gutuna*, 5,1-2).

Guk, beraz, Jainko barkatzaile eta errukitsua gurtzen dugu; Berak irakasten dago eta barrenik laguntzen, gu ere besteekiko errukitxo eta bihotz-zabal

¹¹ Ikus *Korintoarrei lehen Gutuna*, 15,12-28.

¹² Ikus *Efesoarrei Gutuna*, 2. eta 3. kap.

izaten. Jainkoak barkatzen digulako ikasten dugu guk ere barkamena pozik ematen eta hartzen, horrela elkarrenganako maitasuna eta bizitza beren gailurrera eramanez. Gure askatasuna maitasunera eta mugarik gabeko biziaren itxaropenera zabaltzen da, mugagabeko bizia baitu Jainkoak eta guri horixe eskaintzen digu bere errukiz¹³.

Betiko bizia itxaron duena eta itxaropen horren arabera jokatzeko duena ez da mundu honetako ondasunen esklabu. Zorion-irrika eta maitasuna betiko bizira begira jartzen dira. Horrela, mundu honetako gauzak neurritz erabiltzeko askatasuna lortzen dugu; baita halakoei uko egiteko askatasuna ere, baldin eta gauza horiek Jainkoarekiko adiskidetasunetik apartatzeko arriskuan jartzen bagaituzte edota lagun hurkoa leial eta bihotz-zabal maitatzea eta zerbitzatzeta eragozten badigute.

Bere heriotzaz eta piztueraz, askatu egin gintuen Kristok mundu honetako indarren menpetik, Jainkoaren Espirituak guregana isurtzen duen egiazko maitasunez elkar maitatu eta zerbitzatu ahal izateko¹⁴.

Zentzuz esan daiteke, beraz, Garizumaldi honetan borondate oneko gizon eta emakumeek, sinesgabeziaren nahiz agnostizismoaren ilunpetan egonik ere, dei egin diezaiokeeteela denen sorburu eta biziaren iturria den Misterioari, barne laguntza eskatuz. Barre laguntza, bai, beraiek ikusten eta onartzen duten errealitatearen aurrean leialago izateko, lagun hurkoaren ora begirune handiagoz bilatzeko, mundu honetako gauzen duintasuna eta balioa onartzeko, bai norberaren onerako diren neurrian, bai besteen bizitza duinago eta hobea egiteko diren neurrian.

Horrela, geroko piztuera erabat sinetsi gabe ere, ikus dezakegu gauza ora eta ederra dela, denentzat hobea izango den bizitza lortzea, halako bizitzaren alde lar egitea merezi duela, eta halako bizitzan lagun hurkoaren duintasuna eta zoriona norberarenak bezain maitatuak eta errespetatuak izango direla. Halako etorkizuna eskuragarria iruditzen zaigu; denok hurbil gaitezke horretara eta denok egin dezakegu lar berorren alde, zuzen jokatzeko saiatuz eta geure kontzientziaren deiari arretaz erantzunez. Gerora izango den betetasunaren aurrerapena eta irudia izango litzateke hori. Guk, Piztuarengan sinesten dugunok, badakigu halako betetasuna Jainkoarengan gertatuko dela erabat.

Horrela ikusirik, Garizuma ez da asmakizun zaharkitua. Alderantziz, bizitza gogotsu bizitzera egindako dei sakon bihurtzen da, barne askatasunez bizitzera, egia onartuz eta on den guztia gero eta gehiago bilatu eta betez norberaren izatea aberastera egindako dei, alegia.

¹³ Ikus *Erromatarrei Gutuna*, 2. eta 3. kap.

¹⁴ Ikus *Galaziarrei Gutuna*, 5,1-15.

6. Garizumaren mezu argia

Jesukristoren piztueraz oroitzean, mundu osoaren salbamena ospatzen du Elizak handikiro. Jesusen piztueran hasiko zen kreazio berria aurrez iragarri eta prestatu nahirik, Jainkoak gertarazitako salbamen-egintzak gogoratu ohi dituzte kristauek Pazko Gauean.

Bataioa gogoratzeko gaua da, bereziki, Pazko Gaua, adiskidetzeko gaua, Kristoren ikasleak sinesmena berritu eta egintza onetan aurrera egitera deituak diren gaua¹⁵.

Behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, piztuerako Pazkoa ospatzean. Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. Mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Munduko guztiak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezeren eta inoren esklabu izan gabe. Lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Betiko bizitzako ondasunen beste alderdi baikor batzuk ere aipa ditzakegu. Baina, leial izateko, errealista ere izan nahi du Elizak Garizumaren mezua ematean. Guk uste izan dezakeguna baino askoz hobea da, Jainkoaren errukiari esker, gure bizitzaren azken helmuga Orain bizi dugun egoera, ordea, ez dator bat Jainkoaren asmo miresgarriarekin. Hala ere, Jainkoak geroko biziera hori, Jesukristo piztuz gero hitzeman digun eta gerora bete-berean gertatuko den biziera hori, guk oraintxedanik bizitzea nahi du.

Gure sinesmena ez da iluntasunik gabea. Jainkoagan hitzarekiko eta Harren betiko ondasunekiko gure bihotzaren atxikimendua ez da erabat sendoa, ezta guztiz koherentea ere. Jainkoarengan sinesten dugu eta betiko bizia espero dugu; baina, era berean, munduko gauzak gailentzen zaizkigu. Eguneroko bizikizunak argi eta garbi erakusten digu, zein ahula eta urria den gure kristau eta espiritu-bizitza¹⁶.

Garizuma, hain zuzen ere, piztueraren Jainkoagan sinesteko gonbidapena da, eta gure bihotza salbamenaren oraingo eta betiko ondasunetan jartzeko gonbidapena; horrexegatik, gure sinesmenaren eta itxaropenaren ahultasuna eta gure bizimoldearen urritasun morala aitortzeko gonbidapena ere bada, gonbidapen benetakoa eta jatorra. Inoiz mundu honetako ondasun galkorretan salbamena bilatzera eramaten gaituzten sasi-amodioek, eta piztuerako ondasun eta errealitateak eguneroko bizitzan egiaz eta koherentziaz maitatzea eragozten di-

¹⁵ «Elizak, batez ere Abendu eta Garizumaldietan, eta bereziki Pazko Gauean, berrirakurri eta biziberritu egiten ditu Liturgiako “gaur” eguneratua salbamen-historiako gertakariak. Horregatik eskatu ere eskatzen du, katekesiaren bidez fededunei laguntzea, salbameneko ondasunen ulerkerak “espiritualera” zabalik egon daitezen, Elizaren Liturgiak adierazi eta biziarazten digun bezala» (*Eliza Katolikoaren Dotrina*, 1095. z.).

¹⁶ Ikus *Erromatarrei Gutuna*, 7. kap.

guten ahazte eta zabarkeriak, garbialdi askatzaile baten premia larria daukagula ikusarazi behar digute.

Azterketa egin eta bizitza zuzentzeko aldia izan behar du Garizumak, damutu eta bihozberritzeko aldia. Gainetik jarri eta zapaltzen gaituzten gehiegikeria eta bekatuetatik, betiko bizitzara eta salbamenaren ondasunetara aldatu behar dugu, zuzentasun eta justiziara, erruki eta barkaziora, Jainko salbatzailearen grazia eta itxaropenera.

Azken batean, Jesukristoren Jainkoagana bihurtzea da, Bera baita piztueraren eta betiko biziaren Jainkoa, gure bizitzaren on bete eta euskarri sendoa, gure itxaropenaren oinarria eta gure bihotza garbitzera eragiten digun indar atergabea.

Gure Elizen bizi une honetan ez dugu behar adina kontuan hartzen, behar bada, Jesusen eta Apostoluen predikazioaren muin-muinean dagoela bihozberritzeko deia, eta dei hori izan dela beti santuen eta kristau-bizitzaren eredu direnen bizikizunaren ardatza¹⁷.

7. Garizumako ekintzak

Garizuma denbora santua da, Jesukristoren nekaldi, heriotza eta piztuera oroitarazi eta osparazten dizkigulako. Horregatik, aldi horretan ardura berezia eskaintzen diegu kristauok erlijiozko ekintza eta jarduera batzuei: gure sinesmena indartzen laguntzen digute eta gizadi berriaren buru eta hasiera den Jesukristoren piztueran guztiontzat hasitako salbamenaren itxaropena sustatzen dute guregan.

Itxaropen hori, oraintxetik Jesus Jaun berpiztuarengan bizitzeko era berriari mamitzen da. Horregatik, ez da eguneroko bizieratik ihes egitea, eta askoz gutxiago, gure bizitzaren eskakizun erlijioso eta etikoak ezkutatzeko era.

Bataioaren bidez Kristo berpiztuarengan txertaturik dagoelako, betiko bizitzan itxaro duenak, itxaropen honetan barre argia aurkitzen du, bizitza honetako gertaerak ikuspegi berri batera tolestu eta espiritu berriz hartzeko; espiritu berri hori, Jesukristoren Espirituaren eta Jainkoaren berberaren presentzia eta ekintzaren emaitza da gure bihotzetan.

Otoitza, baraua eta limosna hartu izan dira, Garizumaldiari dagozkion “erlijio-ekintza” usadiozkotzat. Berorietan esnatzen dira kristau-bizieraren jarrera sakonak, eta berorietan bideratzen Jainkoaren eta lagun hurkoaren maitasunaren agindu oinarritzakoak.

a) Otoitz egiteko aldia

Kristau-tradizioaren barnean, Garizuma otoitz egiteko aldia da. Kristauen otoitza harremana da, Jainkoaren seme-alabek beren Aita guztiz onarekin, be-

¹⁷ Ikus *Markos* 1,15 eta *Korintoarrei bigarren Gutuna*, 5,20-21.

ren senide Jesukristorekin eta Espiritu Santuarekin bizi duten harreman bizia Komunikazio misteriozko baten konfiantzan eta maitasunean batzen diren Jainkoaren eta gizakiaren ekintza da otoitza¹⁸. Komunikazio horrek bere giza eragina ere badu, elkarrekin otoitz egiten duten senideen artean.

Gaurko bizimoduen eginbeharrek sortzen digute zailtasunik otoitz egiteko. Hala ere, Garizuma Jainkoarengana hurbiltzeko egiazko gogoz bizi nahi badugu, gogo horrek lagunduko digu otoitzerako beta eta tokia bilatzen, nahiz eta geure gain dauzkagun eginbeharrak eta estuasunak ugariak izan.

Indar bereziz gomendatu nahi genizueke Garizumaldi honetarako, igande eta jaiegunetako Eukaristiaren ospakizunean parte hartzea; baita astegunetakoan ere, zuen egitekoek lagatzen dizueten neurrian. Garizumaldiko liturgia benetan adierazgarria da, eta gure espirituzko berrialdian aurrera egiteko bultzada eta laguntza eskaintzen digu. Komeni da egun hauetako liturgia ardurara bereziz ospatzea parrokiak eta eliza guztietan, eta fededunen espirituzko partehartze sakonagoa erraztea, horretarako homilia egokia eginez.

Gogo pixka bat edukiz gero, minutu batzuk aurki ditzakegu, egunero Liburu Santuetako atalen bat irakurtzeko, nahiz Itun Zaharretik nahiz Berritik, eguneko Mezatan irakurritakoekin loturan; horretatik abiatuz, otoitz pertsonala egiteko denbora har dezakegu, salbamenaren Jainko biziarekin fede eta maitasunean komunikaturik egoteko.

Otoitz pertsonal hori askoz mesedegarriagoa izango litzateke familian eginenez gero. Elkarturik otoitz egiteak bihotzak hurreratzen ditu, sentimendu sako-
nenak eta uste errotuenak dauden mailan. Jainkoaren aurrean elkarrekin egotea da geure artean garden eta hurbilak izateko modurik onena.

Otoitz egiteko ariketa honek ahalegina eta erabakia eskatzen ditu. Jainkoaren dohaina da eta, bide batez, maitasun apal, ustetsu eta saiatuaren lorpena. Egiaz saiaturen direnek ikus dezakete posible dela otoitz egitea; behar-beharrezkoa dela, gainera, otoitzik gabe ezin baitaiteke kristau-bizitza sendo eta emankorra bideratu.

b) Barau eta askatasunaldia

Espirituzko ondasunen aitopren praktikoa biziagotzeko era bat, egunero erabiltzen ditugun ondasun materialen bati uko egitea da.

Baraua, mundu honetako ondasunen zenbait murriztatetik askatzeko era praktikoa da. Praktikoa eta, era berean, benetakoa eta sinbolikoa. Eta gainera, ederki asko erakusten du espirituzko ondasunen lehentasuna eta estimua, gure bizitza pertsonal eta moralari eusten dioten, eta bizitza hori aberasten dioten espirituzko ondasunen lehentasun eta estimua. Barau egiten dugunean, ez ditugu janari batzuk uzten soilik; argi eta garbi erakusten dugu nolako garrantzia ematen diegun otoitzari, Espirituaren ondasunei eta Jainkoari berari, gure kristau bizitzaren egiazko janari, adore-iturri eta indartzat hartzen ditugulako.

¹⁸ Ikus *Eliza Katolikoaren Dotrina*, 2564-2565. z.

Ikuspegi honetatik begiratzten bazaie, Elizak agindutako Garizumako baraua eta haragi uztea, legearen eskakizun bat baino askoz gehiago dina. Adierazten dute, beste jarrera bat hartzen dugula ondasun iragankorren aurrean eta beraietaz baliatzeko moduaren aurrean; “geroko” bizitza irekiaren goi-zentzua aurkitzen laguntzen digute, han espero baitugu Jainkoaren betetasunarekin topo egitea.

Era honetan ulertzen denean, barau eta bijiliaren Garizumako ariketa, neurritsu izateko deia gertatzen da: neurritsu, ez otorduetan bakarrik, baizik baita eguneroko bizitzak dituen beste ekintza gustagarri zenbaitetan eta beharrezko ez ditugun ondasunak alferrik gastatzean ere.

Garizumako baraua espirituzko trebaketa da. Mundu honetako gauzen aurrean libre izateko trebatzen gaitu, gure barrua bilduz salbaziozko ondasunekiko maitasun eta oroitzapenean, eta beharrea daudenekiko biziera zuzen eta solidaritazkoan.

Barauaren ulerkera adierazgarri eta sinboliko hau gure bizitzako beste gauza garrantzizko eta ohikoetara zabal dezakegu: esate baterako, gure gaixotasunetik eta adinaren ajeetatik datozen mugak onez hartzen ikastera. Hori eginez gero, hazi egingo ginateke gizalegean, gure bizitzaren egia ulertuz eta gure bizitza gero eta gehiago zabalduz geroko ondasunen esperantza eta gozamenera. Zahartzaroa ere, adorazio –eta penitentzi espirituan biziz gero, geure barrua garbitzeko bide izan daiteke eta salbazio– eta santutze- bide egiazko.

c) Karitaterako eta elkar maitatzeko aldia

Geure espiritu-bizitzan haztea, geurekoikerietatik gero eta gehiago askatzea da, eta Jainkoaren eta lagun hurkoaren maitasunari barrua gero eta gehiago irekitzea. Jainkoarengana hurbiltzen denak, maitasuna eta errukia ikasten ditu Beragandik. Lagun hurkoa egiaz maite duena, Jainkoa ezagutzeko eta maitatzeko bidean doa.

Horrexegatik, Garizuman indartsuago entzuten da lagun hurkoa maitatzeko deia. Otoitzak, barauak, geure burua hesitzeak, besteen beharraz arretaz ohartzera eraman behar gaituzte, nola halako beharra nozitzen dutenengana hurbiltzera eta haiei laguntzeko denbora hartu eta ahaleginak egitera.

Garizumaldia aproposa da besteekiko gure harremanen alor ezberdinetan gure portaera arakatzeko: familian, elkartean, lanean, lagunartean, herritarrekin. Zuzentasunerako eta errukirako aldia da.

Zuzentasunerako aldia ere bada, inoren eskubideak ez zapaltzea baita lortu nahi dena, pertsona guztien duintasuna eta eskubideak errespetatzea, bakoitzari berea duena edo tokatzen zaiona ematea, besteak solidaritazko eta kristausenidetasunezko sentimenduz onartu eta babestea, bereziki behartsuenak eta atzeritarrak.

Garizuma, espiritua berritzeko aldia denez, besteen minera hurbiltzeko aldia da, gure denbora eta baliabideak beraiekin banatzeko aldia, gure bihotza zabaldu eta sufritzen dutenei lekua egiteko eta guztion etxean esperantzaz bizitzen laguntzeko aldia “Eman, eta emango zaizue: neurri zabala botako zaizue altzora, eta betea, eragina, gainezkakoa. Izan ere, zuek erabiltzen duzuen neurriz izango zarete neurtuak” (Lukas, 6,38).

Laztasunera, zuzentasunera eta ez daukatenekin gure ondasunak banatzera egiten zaigun Garizumako deia, indartu daiteke solidaritzazko kanpaina kolektiboetan parte hartzeko kristau-elkarteak egiten digun gonbidapenaren bidez Era horretan gizarteak, eta ez pertsonak bakarka soilik, aitor dezake zein den giza egoera zenbaitekin aurrez aurre jartzen gaituen “aldi” honen esanahia eta balioa, egoera horiek ez baitatoz bat guk aitortzen dugun kristau sinesmenarekin, ezta sarri erabili ohi ditugun justizia eta solidaritzazko hitz handiekin ere. Horregatik, kristau guztiak eta kristau-elkarte guztiak gonbidatzen ditugu, gure elizetan antola daitezkeen era honetako kanpainetan parte hartzera.

d) Domutzeko eta penitentzia egiteko aldia

Piztueraren distiretara egiaz hurbiltzeak gure lotura eta morrontzetatik ateratzea esan nahi du; askaturik, eta gure desio zuzenen eraginez eta gure egin-tza onen egiaz, Kristo Jesusengan berpizteak ematen digun bizitza santura hurbiltzeko.

Baina guk bakarrik ezin izango dugu sekula, geure buruak geure historia pertsonal eta sozialaren atal diren ahulezia eta bekatuetatik askatu. Jainkoak eman diezazkiguke, bere grazia eta Espirituaren ahalmen berritzaile eta berregilez, bihotz eta espiritu berriak, piztuerako bizitza santua osotasunean bizi ahal izan dezagun¹⁹.

Espirituak gure izatearen barru sakonena aldatzen du, giza bihotzean Jainkoarekiko eta senideekiko jarrera eta harreman berriak sortuz Jainkoarekin adiskidetzak, senideekin adiskidetzea eskatzen du derrigorrez, haiekiko maitasun zabal eta egiazkoaren emaitza bezala. Jakin bai baitakigu “ikusten duen senidea maite ez duenak, ezin dezakeela maita, ikusten ez duen Jainkoa” (*San Joanen lehen Gutuna*, 4,20).

Adiskidetzearen eta barkamenaren giza alderdi honen beharra biziki larria da bizi garen gizarte istilutxo honetan, geure barruan bakea egin eta zabaldu ere besteei zabaltzeko.

Egiazko penitentzia, Jainkoak guretzat daukan maitasunaren emaitza da; maitasun horrek bere bisitaz berritu egiten ditu gure bihotzak, baldin eta, apal eta damaturik, Beregana zabalik aurkitzen bagaitu. Hori erakusten digute errukiaren parablek eta farisear harro eta zergalari apalari buruzko Jesusen irakaspenak²⁰.

¹⁹ Ikus *Korintoarrei bigarren Gutuna*, 12,17-11.

²⁰ Ikus *Lukas*, 15. kap eta 18, 9-14.

Profeten eta Kristoren beraren ahotsa Elizaren predikazioaz entzuten da: “Adiskidetu zaitezte Jainkoarekin”, utzi Berak berri zaitzaten, utzi maitasunaren eta itxaropenaren egiaz birsortzen.

Barneko penitentziak bizitza osoari norabide berria ematea esan nahi du, Jainkoa maitasun gorengo eta bizitzaren desio nagusitzat aitortzera itzultzea. Horren barruan sartzen da bizitza aldatzeko nahia eta erabakia, Jainkoerrukiaren itxaropenez eta Beraren Espirituaren laguntzaren konfiantzaz.

Jainkoak bakarrik dauka bekatuak egiaz barkatzeko ahalmena. Jainkoaren barkamen berritzailea Kristoren bitartez eta Elizaren bidez iristen zaigu. “Gizonaren Semeak badu bekatuak barkatzeko eskubidea” (Markos, 2,7). Jaunak bakarrik eman diezaieke besteei bere izenean bekatuak barkatzeko aginpidea, Jainkoagandik hartu duen ahalmenaz.

Horregatik sortu zuen Kristok bere Elizan adiskidetzearen eta barkamenaren sakramentua bekatarietzat eta, baten ere, bataiatu ostean, Bataioko santutasuna beren bekatuz galdu dutenentzat, eliz eta eukaristi elkartasun osoa hautsiz²¹.

Hori horrela izanik, gure Elizbarrutientzat pobretze larria izango litzateke, kristauak barkazioaren eta Jainkoarekin eta senideekin adiskidetzearen ospakizuna (sakramentuzkoa edo ez) alde batera utzia bizitzen ohitzea.

Kristoren izenean, gure bekatuen barkamena aldarrikatzen digu, eta ematen, Elizak. Berak ematen die apaizei adiskidetzeko ministeritza edo zerbitzua, “Kristorengan” bete dezaten. Zerbitzu hori arduraz bete behar dute, eskura jarri dien Elizarekin leial jokatzuz eta kontuan hartuz, nolako garrantzia daukan barkazioaren zerbitzu horrek pertsona bakoitzarentzat eta kristau-elkartearentzat berarentzat.

Jainkoaren barkamena lortzeko ez da nahikoa apaizen ministeritzaz barkamena ematen duen Elizaren bitartekotza. Jainkoarengana itzuli nahi duenaren benetako damua behar da; nor bere penitentzi jarrera eta bekatua erakutsi behar dio apaltasunez, Kristoren eta Jainko Aitaren izenean barkazioa eskaintzen dion Elizari.

Penitentiaren eta barkazioaren edozein ospakizunek penitentzi eta konbertsio-jarrera pertsonalizatua sortu behar du, norbere bekatuaren ezagutza eta aitortzatik sortua. Bekatu hori jarri behar da, Jainkoaren izenean barkazioa ematen duen Elizaren sakramentuzko ekintzaren aurrean. Bekatua erabat pertsonala da, nahiz eta bere ezaugarri sozialak ere eduki; eta, beraz, erabat pertsonala izan behar du bekatariaren Aitarenganako itzulerak, barruko penitentziatzat bihozberritzeko gogoak eta kristau-elkartearen onarpenak, honek berregiten baitu bekatari barkatuarekiko elkartasun betea, gero Eukaristiaren ospakizunetan parte hartu ahal izateko.

²¹ Ikus *Eliza Katolikoaren Dotrina*, 1446 z.

Nork bere bekatua ezagutzera eta beti barkatzeko prest dagoen Jainkoaren egiazko aurpegia aurkitzera eramaten duen prozesu pertsonalizatzaile honek, kristaua ongi prestatuko gu graziari harrera pertsonalizatua egiteko, eta Jainkoarekin eta senideekin adiskidetzen gaituen sakramentuaren indarrari harrera pertsonalizatua egiteko. Nork bere bekatua aitortzea eta apaizaren aurrean bekatu hori pertsonalki onartzea, adiskidetze-sakramentuaren atal dira.

Garrantzi handikoa da, penitentiaren elkarteko ospakizunak egingo direla aditzera ematen denean, parrokia guztiek eta igandero Eukaristia ospatzen duten, eta gero Pazko Hirurrena ere ospatuko duten elizkizun-leku guztiek, era berean aditzera ematea zer aukera dauzkaten fededunek barkazioaren sakramentua pertsonalki eta bakarka ospatzeko.

Azkenik zera gogorarazi nahi dugu: Joan Paulo IIaren pentsamoldean, bihozberritu eta adiskidetzeko deiak esanahi eta garrantzi berezia izan dezakeela aurten ere eliz bizitzan, bi milagarren urteko Jubileu Nagusiaren prestakuntzan. Berak aipatzen zigunez, salbamenaren emaitzak osotasun berri batean jaso nahi baditugu eta gure garaiko gizon-emakumeei Jainkoaren salbamena hots egiteko prestatu nahi baidin badugu, geuk bizi beharko dugu, Jesukristoren Eliza historikoa osatzen dugunok, bihozberritze jatorra, Jainkoagana eta Kristoren ikasle jatorren bizimoldera itzuliz²².

Amaiera

Senide eta adiskide maiteok: zuek guztiongana iritsi nahi izango genuke, guztioi itxaropenezko arrasa emateko. Sinesten dugu Jesukristo dela mundu honetan daukagun itxaropen iturri ziurrena. Horregatik aldarrikatzen dizuegu Bera.

Kristauoi egiazko gogoia sortu nahi genizueke espirituzko zuen bizitza barrutik berritzeko: zuen bihotzen barru-barrutik, hau da, Jainkoaren begientzat agerian eta Espiritu Santuaren eraginarentzat zabalik dagoen barru horretatik zuen bizitzak berritzeko.

Buru-argitasunez eta itxaropenez bizitzako Garizuma honen helburua bat dator, Joan Paulo II.ak bi milagarren urteko Jubileu Nagusirako zehaztu dituen oinarrizko helburu hauekin: “Fedea eta kristauen testigantza indartzea, bihozberritze eta aldaketa pertsonal baten gogo bizia, eta hori otoitzgiro gero eta sakonagoan eta lagun hurkoarekiko, batik bat behartsuenarekiko, solidaritatezko harremanean” (*Tertio Millennio Adveniente*, 42. z.).

Denon artean lortu behar dugu, 1998ko Garizuma hau Garizuma bizi, santu eta santutzaile izatea, denok saiatuz sakontasun eta kemen handiagoz bizitzen kristau-bizitzaren eduki eta ezaugarri funtsezkoen eta berritzaileenak. Egin dezagun Garizuma hau kristau-berrialdi jatorraren Garizuma, Garizuma ebanjelizatzaile, Espiritu Santuaren Garizuma.

²² Ik. JOAN PAULO II, *Tertio Millennio adveniente*, 50. z.

Horrela bizitako Garizumak, Jaunaren Heriotza –eta Piztuera– ospaketaren misterio sakonean sartuko gaitu. Eta bertan biziko dugun esperientzia, Espirituarengan bere Semea berpiztu zuen eta guregan bizi den Jainko biziaren esperientzia, izango dugu itxaropen sendoenaren oinarria, Maitasunera eta Bakera irekitako bizimoldean.

Andre Mariak, Jesusen Ama Birjina eta gure Ama denak, eta gorputzarimaz zerura jaso eta Elizaren eredu eta ama denak, lagun diezagula fedearen eta leialtasun osoaren bidea maitasunez eta adorez egiten, beraren antzeko izan gaitezen gure bizitzaren santutasunean eta gure mundu honetan Jainkoaren Erreinua zerbitzatzeko ahalegin oso-osoan.

Iruñea-Tutera, Bilbo, Donostia eta Gasteiz,
1998ko otsailaren 25ean
Hausterre-eguna

- ✘ **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Rikardo**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Mikel**, Gasteizko Gotzaina
- ✘ **Karmelo**, Bilboko Gotzain Laguntzailea